

Biztanleriaren euskara-ezagutzaren araberako estatistika

Metodologia

SARRERA

Eragiketa honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren 3 urte edo gehiagoko biztanleen euskararen ezagutza ezaugarritzea eta emaitzak aldagai soziodemografiko nagusien arabera deskribatzea: sexua, adin-taldea, nazionalitatea, jaioterria eta biziterria. Eragiketaren hurrengo fasean, aldagai horiek zabaltzea planteatzen da, desgaitasunari, ikasketa-mailari eta diru-sarreraren mailari buruzko aldagai soziodemografikoak aintzat hartzeko.

Estatistika honen jatorria 2011ko edizioaz geroztik Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldetan izandako aldaketa metodologikoen ondoriozko informazio-hutsune bat betetzeko beharreau dago. Harrezkero, administrazio-erregistroen aprobetxamendua funtsezko euskarri bihurtu da erroldak egiteko, eta horrek ekarri du hizkuntzen ezagutzari¹ buruzko informazioa erroldaren galdetegi osagarriaren bitartez jasotzea. Galdetegi hori etxe-lagin bati zuzenduta dago, eta euskararen ezagutzari buruzko udal-estatistikak ordura arte egiten zen bezala sortzeko aukera ezabatu egin da. Beste errolda-aldagai batzuk administrazio-erregistroen bidez osatu ziren, eta, kasu horietan, estaldurak zorrotza izaten jarraitu zuen.

2021eko edizioan, errolda-metodologia finkatu egin da eta zabaldu egin da administrazio-erregistroen bitartez sortzen den informazioa, baina berezko hizkuntzen ezagutza-maila inkesta osagarri baten bitartez jaso da.

Testuinguru horretan, Nastatek euskararen ezagutza administrazio-erregistroen bitartez aztertzea erabaki zuen, errolden bitartez jaso ohi zen estatistika-informazioa sortu ahal izateko. Administrazio-erregistroak erabiltzeak estatistika-informazioaren eskuragarritasuna hobetzea ahalbidetzen du, eta inkesten bidez lortu ezin izango liratekeen mailetaraino areagotzen du bereizketa.

¹ Erroldak hizkuntzen ezagutzari buruzko informazioa jasotzen dute Nafarroako Foru Komunitatean eta beste autonomia-erkidego batzuetan.



HELBURUAK

Estatistika honen bidez helburu hauek lortu nahi dira:

- Euskararen ezagutza ezaugarritzea. Nafarroan bizi diren 3 urte edo gehiagoko pertsonen ehunekoa euskararen ezagutzaren arabera zehaztea.
- Biztanleria euskaldunaren egitura ezagutzea. Ezaugarri soziodemografikoen bitartez, hala nola sexua, adina, nazionalitatea, jaioterria eta biziterria.
- Euskararen ezagutzaren bilakaera kontrastatzea. Biztanleria euskaldunak eta euskaldun hartzaileak gora egiten duen eta zein udalerrri edo eremutan egiten duen aztertzea.
- Estatistika-premiei erantzutea. Administrazio publikoek eta gizarte-eragileek informazioa eskatzen dute herritarren euskara-ezagutzari buruz, beren inguruko errealitate soziolinguistikoaren araberrako premiak asetzeko.
- Kostuak murriztea eta administrazio-erregistroak aprobetxatzea. Estatistika ofizialean administrazio-erregistroak erabiltzeak inkesten erabilera pixkanaka alde batera uztea ahalbidetzen du; horrela kostuak aurrezten dira eta elkarrizketatutako pertsonen pertzepzio subjektiboa saihesten da.

AURREKARIAK

INEk egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldak berezko hizkuntzei buruzko informazioa jasotzen zuten 2011 arte. Erroldak eskaintzen zuten informazioarekin, 1991., 2001. eta 2011. urteetan Nafarroarako Mapa Soziolinguistikoak egin ziren. 2011. urtean egindako mapak ez zuen informazioa udal-mailan bereizten, edizio horretako erroldaren muga metodologikoak zirela eta. Gainera, denbora-jarraitutasunari esker, euskararen ezagutzak denboran zehar izandako bilakaera azter zitekeen. 2021ean egindako azken errolda administrazio-erregistroetatik abiatuta egin da oso-osorik, eta berezko hizkuntzen ezagutzari buruzko informazioa Biztanleriaren eta Etxebizitzen Oinarrizko Ezaugarrien Inkestatik (ECEPOV) abiatuta ematen da. Beraz, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldak ez du mapa soziolinguistiko bat egiteko aukerarik ematen, eta, dituen ezaugarriengatik, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Oinarrizko Ezaugarrien Inkestak emandako emaitzak ez dira egokiak udal-mailako azterlan bat egiteko.

Euskararen ezagutzari buruz egiten den estatistika errolda-estatistika bat da, hau da, azken produktua Biztanleriaren Erregistroa osatzen duten pertsonen informazioa jasotzen duten mikrodaturetatik abiatuta eraiki da. Emandako informazioa pertsonen hizkuntzei buruz duten ezagutza-maila modu batera edo bestera jasotzen duten administrazio-erregistroetatik dator soilik. Datuak biltzeko modu horrek euskararen ezagutza zehaztea baino ez du ahalbidetzen, eta aurretik egindako azterketa soziolinguistikoetan interesgarriak diren beste aldagai batzuk ezagutzea mugatzen du, hala nola euskararen erabilera edo hainbat esparrutan gehien hitz egiten den hizkuntza.



ADMINISTRAZIO-ITURRIAK

Nafarroako Foru Komunitateko euskararen ezagutzari buruzko informazioa biltzen duten iturriak honako hauek dira:

- **Administrazio-iturriak:**
 - EDUCA. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Ikasleek ikasten duten hezkuntza-ereduak² euskararen ezagutzari buruzko informazioa ematen du. Hezkuntza Departamentuak hezkuntza formalean matrikulatutako ikasleen hezkuntza-ereduari, etapari eta ikasmilari buruzko informazioa lortzen du.
 - EGA tituluak. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. EGA tituluak³ ziurtatzen du pertsona batek euskara gaitasunez menderatzen duela, eta Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea da. Titulu hori lortu duten pertsonen buruzko informazioa ematen da.
 - Matrikulak. Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialak. Nafarroako hiru hizkuntza-eskolak (Iruñekoa, Tuterakoa eta urrutikoa) hizkuntzak ikasteko (euskara barne) erreferentziazko ikastetxeak dira. Eskola horiek informazioa ematen dute euskara-irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleei buruz; zehazki, ikaslea zein ikasmilatan matrikulatu den eta ikasmila hori gainditu duen jakinarazten dute.
 - Nafarroako Gobernuko Langileen Erregistroa. Nafarroako Gobernua. Nafarroako administrazio publikoetan badira euskara-maila jakin bat izatea nahitaezkoa duten lanpostuak. Nafarroako Gobernuak lanpostu horiek gobernuan bertan betetzen dituzten pertsonen identifikazioa eta eskatutako euskara-maila eskaintzen ditu.
 - Enplegu-eskaerak. Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua. Lan eskaera bat hastean, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hizkuntzei buruzko zer-nolako ezagutza duten galdetzen die eskatzaileei. Ezagutza hori deklaratu edo ziurtatu izan daiteke. Beraz, pertsona horiei eta euskararen ezagutzari buruzko informazioa lortzen da.
 - Matrikulak. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Unibertsitateko etapan matrikulatzen direnean, ikasleek adierazten dute unibertsitate aurreko etapak zer hezkuntza-eredutan egin zituzten, EGA tituluak duten ala ez, eta euskarari buruzko zer-nolako ezagutza duten.
 - Matrikulak. Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutua. Egiten dituen askotariko lanen artean, Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutuak Nafarroako Gobernuko irakasle ez diren langileak euskalduntzeko programa bat gauzatzen du. Handik ematen dute Nafarroako Gobernuko irakasle ez diren langileak euskalduntzeko ikastaroetan matrikulatutako pertsonen informazioa. Zehazki, zein ikastarotan matrikulatu diren eta ikastaro hori gainditu duten adierazten dute.
- **Estatistika-iturriak:**
 - Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua. Nastat. Urte bakoitzeko urtarilaren 1ean Nafarroan bizi diren pertsonen informazio soziodemografikoa jasotzen du. Zehazki, honako aldagai hauek: sexua, adina, nazionalitatea, jaioterria eta biziterria.
 - Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldak. Estatistikako Institutu Nazionala. Erroldak aukera ematen dute une jakin batean bertan bizi den biztanleriaren ezaugarriak

² Ikus I. eranskina.

³ Ikus II. eranskina.



zehazteko. Hamar urtean behin, inkesta bidez, hizkuntza koofizialak dituzten autonomia-erkidegoetan bizi diren pertsonen berezko hizkuntzen ezagutza deklaratuari buruzko informazioa jasotzen da. Datuak biltzeko prozesu horrek aldaketa metodologikoak izan ditu 2011ko edizioan, eta 2021eko edizioan finkatu egin dira.

- Biztanleriaren eta Etxebizitzen Oinarrizko Ezaugarrien Inkesta. Estatistikako Institutu Nazionala. 2021. urteaz gerostik, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda oso-osorik egiten da administrazio-iturrietatik abiatuta. Inkesta hau osagarri gisa egiten da, hizkuntzen ezagutza edo mugikortasuna bezalako informazio osagarria eskuratzeko. Estatistika honen intereserako, inkestatutako pertsonen berezko hizkuntzen ezagutza deklaratuari buruzko informazioa ematen du.
- Gizarteari eta bizi-baldintzei buruzko inkesta. Nastat. Gizarteari eta bizi-baldintzei buruzko inkesta urtero egiten da Nafarroan, herritarren zenbait alderdiri buruzko informazioa biltzeko. Denboran nolabait ere errepikatzen diren moduluek osatu ohi dute. Modulu horietako bat hizkuntzen ezagutza da, eta, beraz, hizkuntzen ezagutzari buruzko moduluan inkestatutako pertsonen buruzko informazioa eskaintzen du.
- VII. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutua. Bost urtean behin, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta L'Office Public de la Langue Basque - Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzan, Inkesta Soziolinguistikoa egiten da, Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak biltzeko. Eragiketa hori egiteko, 2021eko edizioan Nafarroan bizi ziren elkarrizketatuen euskara-ezagutza deklaratu erabili da.

Iturri horiek ematen duten informazioa tratatu eta araztu egiten da, hizkuntza-gaitasuna Nafarroako biztanleei esleitzeko emaitzak lortzeko, denbora-koherentziari eutsiz.

HIZKUNTZA-GAITASUNA

Euskararen ezagutza biztanleriaren hizkuntza-gaitasunaren bidez analizatzen da. Euskararen ezagutzari dagokionez, hiru hizkuntza-gaitasun kontuan hartzen dira:

- Euskalduna: euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak dira euskaldunak.
- Euskaldun hartzailea: euskaldun hartzaileek euskaraz nekez ulertu eta hitz egiten dute, edo ondo ulertzeko gai dira, baina ez dute euskaraz egiten edo nekez egiten dute.
- Ez-euskalduna: ez-euskaldunek ez dute euskaraz hitz egiten, ezta ulertzen ere.

Pertsona bakoitzari aurreko hiru hizkuntza-gaitasunetako bat esleitu zaio, administrazio-erregistroek emandako informaziotik abiatuta.

Administrazio-iturri bakoitzak modu desberdinean gordetzen du pertsonen euskararen ezagutza, iturri batzuek ezagutza deklaratu jasotzen baitute eta beste iturri batzuek ziurtagiri ofiziala. Beraz, bildutako informazioaren homogeneizazioa beharrezkoa da hizkuntza-gaitasuna eraikitzeko.

Administrazio-erregistroak bateratu egiten dira hizkuntza-gaitasunaren sintesiaren aldagaia eraikitzeko. Soziolinguistikako hizkuntzen ezagutza deklaratu oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunetan bereizten da: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Ziurtagiri ofizialak,



alabaina, lau gaitasun horiek hizkuntzaren maila globaletan laburbiltzen ditu, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren sailkapenaren arabera, sei mailatan (A1, A2, B1, B2, C1, C2). Euskararen ezagutzari buruzko bi informazio mota horiei prestakuntza arautuaren hezkuntza-erregistroetatik datorren informazioa gehitu behar zaie.

Hizkuntza-gaitasuna erabilgarri dagoen informaziotik abiatuta eraikitzeke, argi eta garbi bereizi behar dira ezagutza ziurtatua, ezagutza deklaratu eta hezkuntza-erregistroak. Ziurtatutako edo egiaztatutako ezagutzarekin batera, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan lortutako erreferentzia-maila egiaztatzen duen titulu ofizial bat aurkezten da. Ezagutza deklaratu, aitzitik, galdetzen zaionean pertsonak adierazten duena da.

Hizkuntza-gaitasuna eraikitzea. Hizkuntza-gaitasuna ezagutza ziurtatutik abiatuta eraikitzeke, 1. taulan adierazitako korrespondentziak kontuan hartzen dira.

1. TAULA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko titulazioaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko korrespondentzia⁴.

	Gaitasuna
Titulaziorik gabe	Ez-euskalduna
A1 - A2 - B1	Euskaldun hartzailea
B2 - C1 - C2	Euskalduna

Aipatu den bezala, ezagutza deklaratu oinarrizko lau gaitasunetatik abiatuta eraikitzen da: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Ezagutza mota hori jasotzen duten iturriek galdera espezifikoak dituzte oinarrizko gaitasun horietako bakoitzari buruz. Erantzunak honako hauek izan daitezke:

- ongi, ongi samar, zerbait, hitzak besterik ez, ezer ez
- ongi, nekez, ezer ez

Bi erantzun motak bateratzeko, erantzunen kategoriak bostetik hirura murrizten dira, honela: *ongi* eta *ongi samar* bateratu eta *ongi* bihurtzen dira, *zerbait* eraldatu eta *nekez* bihurtzen da, eta *hitzak besterik ez* eta *ezer ez* bildu eta *ezer ez* bihurtzen dira. Horrela, ezagutza deklaratuaren iturri guztiak berdina trata daitezke. Oinarrizko gaitasun bakoitzerako hiru kategorietatik abiatuta, hizkuntza-gaitasunaren aldagaia osatzen da, 2. taulan erakusten den moduan.

⁴ Europako Kontseiluak egindako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailen deskribapenetatik abiatuta Nastatek eraikitako korrespondentziak. Ikus III. eranskina.



2. TAULA

Ezagutza deklaratuak abiatuta hizkuntza-gaitasunaren aldagaia sortzeko taula.

	Ulertzen du	Hitz egiten du	Irakurtzen du	Idazten du	Hizkuntza-tipologia
Ez-euskalduna	Ezer ez	-	-	-	Erdalduna
Ez-euskalduna	Nekez	Ezer ez	-	-	la euskaldun pasiboa
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	Ezer ez	-	la euskaldun alfabetatu gabea
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	-	Ezer ez	la euskaldun alfabetatu gabea
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	Nekez	Nekez	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	Nekez	Ongi	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	Ongi	Nekez	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Nekez	Nekez	Ongi	Ongi	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Ongi	Ezer ez	-	-	la euskaldun pasiboa
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	Ezer ez	-	la euskaldun alfabetatu gabea
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	-	Ezer ez	la euskaldun alfabetatu gabea
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	Nekez	Nekez	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	Nekez	Ongi	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez	la euskaldun alfabetatua
Euskaldun hartzailea	Ongi	Nekez	Ongi	Ongi	la euskaldun alfabetatua
Euskalduna	Ongi	Ongi	Ezer ez	Ezer ez	Euskaldun alfabetatu gabea
Euskalduna	Ongi	Ongi	Ongi	Ongi	Euskaldun alfabetatua
Euskalduna	Ongi	Ongi	Gainerako konbinazioak		Euskaldun partzialki alfabetatua

Iturria: Nafarroako mapa soziolinguistikoa. 2011. urtea.

Hezkuntza-erregistroen tratamendua ikaslea matrikulatuta dagoen hezkuntza-ereduaren eta -programaren arabera da. Nafarroako hezkuntza-sistemak zenbait hizkuntza-eredu ditu, gaztelaniaren, euskararen eta beste hizkuntza batzuen erabilera-maila desberdinak jasotzen dituztenak. Hizkuntzak tratatzeko eredu eta programen konbinazio horiek lau hizkuntza-eredutan laburbiltzen dira: G, A, B eta D. Eredu horietan, euskara arian-arian integratzen da irakaskuntzan, gutxiagotik gehiagora: G ereduak ez du euskarazko irakaskuntzarik eta D ereduak irakaskuntza osoa euskaraz ematen da, gaztelania izan ezik. Eredu horietan ikasturteak amaitzek ikasleak hizkuntza-gaitasunetan prestatzea dakar. Hizkuntza-gaitasuna ikasleak matrikulatuta dauden eredu eta ikasmaitatik abiatuta eraikitzeko, Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak curriculum-egokitzapenentarako ematen duen gomendioa erabiltzen da⁵. Gainera, A, B eta D ereduak matrikulatutako ikasle guztiei, gutxienez, euskaldun hartzailearen hizkuntza-gaitasuna esleitzen zaie.

Pertsona baten euskara-ezagutza zenbait administrazio-erregistroetan agertzen bada, erregistroen artean lortutako gaitasunik handiena esleitzen zaio.

Egozte-prozesua. Biztanleriaren Erregistroa administrazio-iturriekin gurutzatzeko prozesua egin ondoren, ez da ezagutzen 3 urte edo gehiagoko biztanleen % 13,1ek zer-nolako euskararen ezagutza duten. Esleipenik ez duten pertsonen ehunekoa handiagoa da atzerritar nazionalitateko pertsonen artean, ezaugarritu gabeko pertsonen adin-taldearen eta nazionalitatearen arabera banaketa erakusten duen 3. taulan ikus daitekeen moduan.

⁵ Ikus IV. eranskina



3. TAULA

Hizkuntza-gaitasuna esleitu gabe duten pertsonen nazionalitatearen eta adin-taldearen arabeko banaketa.

	Ezaugarrituen %	Ezaugarritu gabeen %
Espainiako nazionalitatea	% 91,2	% 8,8
25 urtetik beherakoak	% 95,9	% 4,1
25 eta 50 urte bitartekoak	% 91,3	% 8,7
50 urtetik gorakoak	% 88,5	% 11,5
Atzerritar nazionalitatea	% 54,8	% 45,2
25 urtetik beherakoak	% 68,2	% 31,8
25 eta 50 urte bitartekoak	% 49,4	% 50,6
50 urtetik gorakoak	% 52,2	% 47,8
Guztira	% 86,9	% 13,1

Iturria: Nastat. Biztanleriaren euskara-ezagutzaren arabeko estatistika. 2021. urtea

Hizkuntza-gaitasuna esleitu gabe duten pertsonen banaketaren ondorioz, euskararen ezagutza atzerritar nazionalitateko biztanleen artean egozten hasten da. Pertsona bakoitzari hizkuntza-gaitasun gisa egozten zaio talde soziodemografikoaren kategoria ohikoena, bizilekuaren hizkuntza-eremuak, hamar urteko adin-taldeak eta jaioterriak zehazten dutena. Egozte-prozesu horren ondoren, ezaugarritu gabeko biztanleriaren ehunekoa % 7,8ra jaisten da. Gero, antzeko egozte-prozesu bat gauzatzen da Espainiako nazionalitateko biztanleriaren artean, biztanleria osoari euskararen ezagutza-maila bat esleitzeko.

EMAITZEN ZABALKUNDEA

Biztanleria. Estatistika honen helburuko populazioa Nafarroan bizi den 3 urte edo gehiagoko biztanleria da, adin horretan hasten baita biztanleria euskararekin zerikusia duten administrazio-erregistroetan agertzen, hezkuntza-erregistroetan normalean.

Zonifikazio geografikoa. Euskararen ezagutzari buruzko estatistikak udal-mailako emaitzak eskaintzen ditu. Indarrean dagoen hizkuntza-zonifikazioaren arabeko emaitzak ere aurkezten dira: 9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena. Denboran zeharreko konparazioa hizkuntza-eremuen arabera egin daiteke, lurralde-baterakuntza urtero egin baita indarreko azken hizkuntza-zonifikazioaren arabera.

Maiztasuna. Administrazio-iturriak erabiltzeak estatistika honen maiztasuna murriztea ahalbidetzen du. 2021. urteaz geroztik, euskararen ezagutzari buruzko inkesta urtean behin egiten da.

Eskaerak. Neurri egindako eskaerei erantzungo zaie, baldin eta estatistika-sekretua babestearekin bateragarriak badira.



I. ERANSKINA

Nafarroako hizkuntza-ereduak

Nafarroako hezkuntza-sistemak zenbait hizkuntza-eredu eskaintzen ditu, haurrak gaztelaniaz eta/edo euskaraz emandako irakaskuntzan eskolatzea ahalbidetzeko sortuak.

- **A eredia**

Irakaskuntza gaztelaniaz ematen da, euskara irakasgai dela, maila, etapa eta modalitate guztietan.

- **B eredia**

Irakaskuntza euskaraz ematen da, gaztelania irakasgai eta erabilera-hizkuntza dela gai batean edo batzuetan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera.

- **D eredia**

Irakaskuntza osoa euskaraz ematen da, gaztelaniaren irakasgaia izan ezik.

- **G eredia**

Euskarazko edo euskararen irakaskuntzarik ez duen eredia da. Hizkuntza-eremuaren arabera ezartzen da.

Eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira, eta, hortaz, euskararen irakaskuntza nahitaezkoa da; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira, eta eremu ez-euskaldunerako A, D eta G ereduak. 4/2015 Foru Legeak, otsailaren 24koak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duenak, eremu horretan D eredia ezartzea baimentzen du.

Nolanahi ere, hezkuntza-sisteman sartzeko hizkuntza-eredu bat aukeratzen duten ikasleek eredu horrekin jarraitu beharko dute eskolaldi osoan.

Iturria: Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua.



II. ERANSKINA

EGA titulua

EGA tituluak ziurtatzen du pertsona bat erabiltzaile gaitua dela, euskaraz ondo dakiena, eta titulua daukanari aukera ematen dio euskaraz jakitea eskatzen duten lanpostu guztietara iristeko.

- Titulua ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundekoa izan da 2013tik 2019ra, eta C1 mailako titulu gisa sailkatuta dago Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan.
- Azterketak hiru proba ditu: atariko proba, idatzizko proba eta ahozko proba; egun desberdinetan egiten dira eta baztertzailak dira.

Iturria: Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua.



III. ERANSKINA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren erreferentzia-maila bateratuak:

Erabiltzaile gaitua

- **C2 maila**

Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko.

Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten.

Badaki bat-batean, jarioetasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.

- **C1 maila**

Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko.

Badaki jarioetasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola.

Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin.

Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio-eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.

Erabiltzaile independentea

- **B2 maila**

Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira.

Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jarioetasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko.

Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

- **B1 maila**

Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian.

Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen.

Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake.



Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labor-labor arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.

Oinarrizko erabiltzailea

- **A2 maila**

Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute.

Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere.

- **A1 maila**

Gai da eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzeko eta erabiltzeko, eta baita berehalako beharrak asetzera bideratutako esaldi soilak osatzeko ere.

Badaki bere buruaren eta besteren aurkezpena egiten, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazio pertsonala ematen eta eskatzen. Oinarrizko harremanak izan ditzake, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

Iturria: Hezkuntza Departamentua. Europako Kontseilua



IV. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako programa. NUHEO

Lankidetzeta-programa honen helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleek, beren borondatez eta beren irakasleekin dituzten ohiko eskola-orduetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntza espezializatuak ikasle ofizial gisa egin ahal izatea eta indarrean dauden curriculum-egokitzapenei jarraikiz dagozkien ziurtagiriak lortzea.

2021-22 ikasturtean Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren antolaketa eta jarduna arautuko duten jarraibideetan ([273/2021 Ebazpena, ekainaren 24koa](#); [176. NAO, 2021eko uztailaren 29koa](#)) jasotakoaren arabera, ikaslea honako korrespondentzia-sistema honen arabera matrikulatu ahal izango da:

Adecuaciones Generales		
ESTUDIOS SECUNDARIA	EUSKERA MOD A	EUSKERA MOD D
3º ESO	Básico (A2)	----
4º ESO	Básico (A2) – Intermedio (B1)	Avanzado (B2)
BACHILLERATO	Intermedio (B1) – Avanzado (B2)	C1*
F.P. GRADO MEDIO Y SUPERIOR	Intermedio (B1) – Avanzado (B2)	Avanzado (B2)

Goragoko maila bateko ziurtagiria eskura dezaketela frogatzen duen hizkuntza-biografia (ohiz kanpoko ikaskuntza xede-hizkuntzan) duten ikasleek euskararen B2 eta C1 mailak ziurtatzeko aukera izango dute.

Iturria: Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Biztanleriaren euskara-ezagutzaren araberrako estatistika. 2021.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00